

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

## **EKONOMIA JARDUEREN GAINKO ZERGEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **I.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Bermeoko Udalak ordenantza honen arabera eskatuko dau zerga, Tokiko Ogasunak arautzen dauzan 1989ko bagilaren 30eko 5/89 Foru Arauaren 19. artikuluan eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergearen 1989ko bagilaren 30eko 6/89 Foru Arauan ezarritakoagaz bat etorriz.

#### **2. artikulua**

Ordenantza hau aplikatzeko esparrua udalerrri osoa izango da.

### **II.- ZERGA EGITATEA**

#### **3. artikulua**

1.- Ekonomia jardueren gaineko zerga egitatea da udalerrian enpresa, lanbide eta arteko jarduerak egitea, lokal jakin baten egin zein ez eta zergearen tarifetan zehaztuta egon zein ez.

2.- Zerga honen ondoreetarako, enpresa jardueratzat joko dira abeltzaintzako jarduerak, lokabeak direnean ; baita meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzakoak ere. Beraz, ez dira multzo horretan sartzen nekazaritzako jarduerak, basogintzakoak eta arrantzakoak, eta horietatik bakar bat ere ez da zerga egitatea

3.- Aurreko zenbakian ezarri denaren ondoreetarako, abeltzaintza lokabetzat joko da ondoko kasuetako batean dauden abelburu multzoen ustiapena:

- a) Jabeak ez nekazaritzako ez basogintzarako erabiltzen ez dituen lurretan gehienbat bazkatzen direnak.
- b) Landalurreko finketatik kanpoko kortan daudenak.
- c) Azienda transhumantea edo transterminantea.
- d) Haztegian bertan ekoitzi ez diren pentsuez elikatzen den azienda.

#### **4. artikulua**

1.- Enpresa, lanbide edo arteko jarduera bat egiten dala ulertuko da produzino bideak eta giza baliabideak norbere kontura antolatzen diranean, edo horreetako bat, zertarako-eta ondasunen edo zerbitzuen produzinoan edo banaketan esku-hartzeko.

2.- Zergapetutako jardueren edukia zergearen tarifetan zehaztuko da.

3.- Zergapetutako jarduerak zuzenbidean onartutako edozein bide erabilia egiaztatuko dira eta, zehatzago, merkataritza kodearen 3. artikuluan ezarritako bideak erabilia.

### **III.- ZERGEA ORDAINDU BEHAR EZ IZATEA**

#### **5. artikulua**

Ez dira izango zerga egitatea honako jarduera honeek egitea:

1.- Inbentarioan ibilgetu lez agertzen diran enpresen aktibo finkoetako ondasunak besterenganatzea, saltzailearen erabilera partikularreko eta pribaduko ondasuna saldu eta eskualdatu baino urte bi lehenago gitxienez, horrenbeste denpora erabili izan baditu.

2.- Lan pertsonalak edo lanbide zerbitzuak ordaintzeko jasoten diran produktuak saltzea.

3.- Establezimentua apaintzeko helburu bakarra daukien gauzak erakustea. Bezeroentzako oparia erakusten bada, ostera, zerga ordaindu beharko da.

4.- Handizkako salmenta danean, ekintza edo eragiketa bakarra egitea.

### **IV.- SALBUESPENAK**

#### **6. artikulua**

1.- Zerga ordaintzetik salbuetsita dagoz:

a) Estatu, Euskal Herriko Autonomia Erkidego, Bizkaiko Lurralde Historiko, udalerrri eta horren guztien administrazio erakundeak.

b) Nazioarteko itunak edo hitzarmenak dirala bide salbuespena aplikatu behar jaken subjektu pasiboak.

c) Gizarte Segurantzak kudeatzen daberen erakundeak eta legean ezarritakoaren arabera eratutako mutualidadeak eta bahietxeak.

d) Ikerketarako herri erakundeak eta maila guztietako ikastetxeak oso-osorik Estatuko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko edo udalerriko diruaz ordainduak edo ongintzako edo herri erabilerako fundazioek finantzatuak, nahiz eta salbuespen modura establezimentu berean irakaskuntza horrentzat diharduen tailerretako produktuak saldu. Salmenta horretako zenbatekoa, partikularrentzat edo hirugarren batentzat baliagarria ez dana, lehengaiak erosteko edo establezimentua mantentzeko erabiliko da bakarrik.

e) Gorputz, adimen eta zentzumen urrikoen aldeko irabaz asmorik gabeko elkarte eta fundazioak, ezinduen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babeserako egiten dituzten pedagogia, zientzia, sorospen eta enplegu iharduerengatik, horretarako erabilitako lantegietan ateratako ekoizkinak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein norbanako ezta inorentzat ere izan gabe, lehengaiak erosteko edo establezimenduari eusteko soil-soilik erabiltzen bada.

f) Gurutze Gorria eta lurralde historikoaren xedapenaren bitartez erabagiko diran beste erakunde berdineskor batzuk.

g) Beren jarduerari zerga hau garatzen den lehen bi zer-galdietan ekiten dioten subjektu pasiboak.

Horretarako, honako kasu hauetan jarduera bat ez da hasitzat joko:

1. Lehen beste titulartasun batekin egin bada; eta hala gertatzen dela ulertuko da, besteak beste, jarduera-arloak fusionatu, bereizi edo gehitzen direnean.
2. Subjektu pasiboa Merkataritza Kodeko 42.artikuluaren arabera sozietate multzo baten parte bada, baina jarduera hori taldeko beste enpresetako inork lehenago garatutako jarduera bat denean izan ezik.
3. Jarduera horretan, partaidetzaren %25 baino gehiago jarduera hori aurretik garatu duten enpresei baldin badagokie.

Aurreko paragrafoetan xedatutako betetzeko, jarduera bera garatzen dela ulertuko da, zergaren tarifetan jarduera hori talde beraren barruan sailkatuta dagoenean.

h) Jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak, jarduera hasi eta zerga honen lehenengo bi zergaldietan. Ondore hauetarako, jarduera bat ez hasitzat joko lehenago beste titulartasun batekin egin bada; esaterako, bategitea, bereizketa edo jarduera arloren baten gehikuntza gertatu bada.

i) Urteko eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplika dezakete, baldin eta eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa badute.

Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa da subjektu pasiboek ez edukitzea %25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 59 eta 60.artikuluetan, hurrenez hurren, aipatutako arrisku kapitaleko funtsak edo sozietateak edo enpresen sustapenarako sozietateak direnean eta partaidetza hori sozietatearen xedearen betekizunaren ondorio denean.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1go. Eragiketa bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2.artikuluko 7.idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

2gn. Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauexek izango da: aitorpena zerga-zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33.artikuluari aipatutako sozietate zibilen eta erakundeen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da. Zergaldia urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3gn. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42.artikuluaren arabera, sozietate talde bateko kidea bada, lehenago aipatu magnitudeak talde horretako erakundeen multzoari egokituko zaizkio.Era berean ezarriko da irizpide hau pertsona fisiko batek berak bakarrik edota bigarren gradura arte, azkena ere barne, zuzeneko edo alboko ahaidetasun, odol-ahaidetasun edota ezkontahaidetasun lokarriez bat egindako beste pertsona fisikoekin batera kide den beste erakunde batzuekin harremanak baditu Merkataritzako Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen balizkoren batean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondoreetarako, Merkataritzako Kodearen 42.artikuluko kasuak abenduaren 20ko 1.815/1991 Errege Dekretuak onetsitako urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetako lehenengo kapituluko 1.atalean ezarritakoak direla ulertuko da.

4gn. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen bolumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaiena izango da.

Artikulu honen 2.apartatuan "aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan arautu diren onurak" ipini barik " aurreko idatz-zatiko d) eta g) letretan" ipini behar du.

2.- Aurreko atalaren d) eta e) hizkietan araututako onurak erregutuzkoak izango dira eta alde batek eskaturikoak izango dira egokia danean.

3.- Edozelan be, salbuespenak emoteko edo ukatzeko, lurralde historikoko Foru Aldundiaren txosten teknikoa behar da aurretik.

## **V.- SUBJEKTU PASIBOAK**

### **7. artikulua**

Zerga honen subjektu pasiboak dira lurralde historiko zergen Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aitatzen diran erakundeak eta pertsona fisikoak eta juridikoak, zerga egitatea eragin daben jarduerak udalerrian egiten badira.

Urte natural bakotxean sei hilebetex baino gehiago atzerrian bizi diran subjektu pasiboek Espainiako helbidea daukan ordezkari bat izendatu beharko dabe, udal ogasunagaz izan leitekezan hartuemonetarako.

Aurreko idatz-zatiko a), b), c) eta f) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitorpena.

## **VI.- ZERGA-KUOTEA**

### **8. artikulua**

Zerga-kuota hurrengo aitatuta dagozan elementu eta eragiketen emaitza izango da:

1-Ekonomi Ihardueren gaineko Zergako Tarifak eta Jarraipidea onesten dituen 1/1991 Arauamete Foru Dekretuan ezarritako gitxiengo udal kuotak eta 14 erregelari aurreikusitako tributu elementuak kontutan izandako oinarritzko kuota.

2- Aurreko ataleko oinarrizko kuota eragiketa bolumenaren arabera haztapen koefiziente honekaz gehituko da:

<u>Eragiketen bolumena</u>	<u>Koefizienteak</u>
2.000.000,00 eta 6.000.000,00 euro bitartekoak	1,20
6.000.000,00 eta 10.000.000,00 bitartekoak	1,22
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartekoak	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartekoak	1,27
100.000.000,00 gorakoa	1,30
Eragiketa-bolumenik ez	1,25

3- 2. ataleko emaitza udalerrietan egiten diran jarduera guztietarako **2,2** koefiziente bakarragaz gehituko da. Horrela, azken honen emaitza izango ordaindu beharreko zerga-kuota.

## **VII.- ZERGALDIA**

### **9. artikulua**

1. Zergaldia egutegiko urtea bera izango da, salbu eta alta aitortzen direnean, horrelakoetan jarduera hasten den egunetik egutegiko urtea amaitu arteko izango baita, artikuluko honen 2. paragrafoko 2. lerroaldean xedatutakoa eragotzi gabe.

2. Zergaldiaren lehen egunetik aurrera sortuko da zergea eta kuotak ezin izango dira txikitu jarduera urte naturalagaz batera ez bada hasten, alta adierazpenen kasuetan izan ezik. Kasu horretan, urtea amaitzeko falta diran hiruhileko naturalen kopuruaren proportzioan kalkulauko dira kuotak, jarduera hasten dan hiruhilekoa barruan dala.

3. Bajen gaineko adierazpenetan, bajaren egunera arte igaro diran hiruhilekoen kopuruaren proportzioan kalkulauko dira kuotak, zergapetutako jarduerari izten jakon hiruhilekoa barruan dala, hiruhileko hori alta aurkezteagaz batera egiten danean izan ezik. Halan danean, hurrengo urteko lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak bajak.

4. Ikuskizunak badira, jarduketa bakarren gaineko kuotak diranean, jarduketa bakotxa egitean sortuko da zergea, eta arauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu beharko dira adierazpen egokiak.

## **VIII.-ZERGEAREN KUDEAKETEA**

### **10. artikulua**

1. Zergearen matrikulatik abiatuta kudeatzen da zergea. Matrikula hori urtero gauzatuko da eta ekonomia jarduerak, subjektu pasiboak, zerga zorrak eta, halan danean, foru errekaruak izango dituen zentsuek osotuko dabe matrikula. Berau jendearen eskura egongo da.

2.- Hain zuzen ere, foru araua honetako 5.artikuluko 1.idatz-zatikoko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena".

3. Zergen ikuskapenen edo altak eta komunikazioak gauzatzearen ondorioz zentsuan agertzen diran datuak sartu, kendu edo aldatzen badira, administrazio ekintza burutu dala ulertuko da eta zentsua aldatu beharra eragingo dau. Zentsuetan dagozan datuen

gaineko matrikularen edozein aldaketa egiteko, aurretik azken urteotan aldatu beharko dira halanbeharrik.

4. Subjektu pasiboek artikulua honen 2. atalean agertzen diran adierazpenak aurkezten ez baditue, udalak ofizioz jardun leike adierazo bako datuak sartzeko eta aurkeztutako datuak zuzentzeko akatsen bat balego, zigorrak dakarzan zigorrei edo ezarritako betebeharrak ondo ez betetzeak dakarzan zigorrei kalterik egin barik.

#### **11. artikulua**

Udal administrazioaren laguntasunari kalterik egin barik, Lurralde Historikoko Foru Aldundiak ezarri eta kalifikatuko ditu kuotak.

#### **12. artikulua**

Udalaren eskumena da zergea kudeatzea, kitzatzea eta biltzea. Halanda be, eta Tokiko Ogasunen gaineko 5/89 Foru Arauaren 8. artikulua dala bide, udal honek hitzarmena izenpetuko dau Foru Aldundiagaz berau kudeatu, kitatu eta biltzeko.

#### **13. artikulua**

Zerga arau-hausteen kalifikazioaren inguruko gai guztietan eta horreei jagokezan zigorren inguruko gai guztietan, Kudeaketa, Kitapen eta Ikuskapenaren gaineko Ordenantza Fiskal Orokorra bete beharko da.

#### **14. artikulua**

Jarduerak sailkatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurtsio eta erreklamazioak direla eta, Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 156 eta 168 bitarteko artikuluetan xedatutakoa beteko da. Bizkaiko Foru Aldundia izango da horrelako errekurtsio eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna. Errekurtsio edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

#### **15. artikulua**

1.- Foru Aldundiak egingo du matrikula eta Udalari igorriko dio.

2.- Behin matrikula jaso eta gero, Udalak jendaurrean azalduko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek aztertu ahal dezaten eta bidezko deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

3.- Jendaurreko azalpen epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzaren ziurtagiria Foru Aldundiari igorriko zaio onetsi dezan. Behin onetsita, udalek ordainagiriak egingo dituzte lankidetzarako arauen kalterik gabe.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Bigarrena: Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren subjektu pasiboek dagokienez, 7/2003 Foru Araua indarrean jartzean bertan ezarritakoaren arabera hura ordaindu beharretik salbuetsita ez daudenek jarduera bati ekitearen ziozko hobaria, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifak eta jarraibideak onetsi dituen apirilaren 30eko 1/1991 Araugintzako Foru Dekretuko Tarifen bigarren ataleko 1. denentzako oharrean araupetutakoa, aplikatu badute euren kuotan, hobari hori aplikatzen jarraitu ahal izango

dute, aipatutako baterako oharrean ezarritakoari lotuz, harik eta hobariaren aplikazio aldia amaitu arte.

Hirugarrena : 7/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko bertan ezarritakoa, hots, lehengo arauen arabera eramenduko dira

Laugarrena: Foru arau honek edo ordenantza fiskalek egindako aldaketaren bat dela zio ordainagiri bidez kobratzen diren zerga-zorren elementuetan zerbait aldatzen bada, taldeka jakinaraziko da ediktu bidez eta ez da egongo banaka jakinarazi beharrik; honek 2004.urtean soilik izango ditu ondoreak.

## **IX.- XEDAPEN IRAGANKORRA**

Zerga hau aplikatzen hasten danean edozein onura fiskal daukienez Merkataritzako eta Industriako Jardueren gaineko lizentzia fiskalean edo Lanbide Jardueren eta Artisten Jardueren gaineko lizentzia fiskalean, onura iraungi artean jarraituko dabe izaten onuradunak lehenengo kasuan, eta gozatzeko azken egunik eduki ezik, 1993ko abenduaren 31ra artean, azken egun hori barruan dala.

## **X.- XEDAPEN GEHIGARRIA**

Gitxieneko kuotak finkatzeari eta kuoten jarraibidea egiteari jagokonez, gero kudeatu ahal izateko, Ekonomia Jardueren gaineko Zergearen jarraibideak eta tarifak onetsi dauzan apirilaren 30eko 1/1991 Arauen gaineko Foru Dekretuan ezarritakoa bete beharko da.

## **XI.-AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udaltzakoak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOren 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarrik barik itxi arte.